


## Udal-hauteskundeetarako bigarren itzulia otsailaren 27 goizean egingo da



Otsailaren 27an, igandea, udal-zerrenda osatzeko prozesuan hauteskundeen bigarren itzulia egingo da. Goizeko 9:30etatik 12:30etara egongo da irekita hautetsontzia udal-etxean. Bigarren itzuli hau hilaren 20an egindako herribileraren ondoren dator.

Bigarren itzuli honetan, boto eskubidea duen herritar bakoitzak gehienez zazpi izen aukeratu ahal izango ditu, lehenengo itzulian boto gehien lortu zituzten (eta atzera egin ez zuten) hamabost herritarren artean. Honakoak

dira hamabost pertsona horiek lortutako boto kopuruaren hurrenkeran idatzita: Jose Manuel Oria, Aitziber Makazaga, Andoni Alustiza, Haritz Iztueta, Ion Muñoa, Itxaro Alustiza, Arantzazu Muñoa, Joxemari Telleria, Igor Ojanguren, Amaia Junkera, Arantxa Ruiz Larrinaga, Andoitz Iztueta, Mariajexux Mendizabal, Haritz Eguren eta Santi Muñoa. Egun eta ordu horrtean, botoa norberak eraman ezin badu, familiakoek nahiz lagunek eraman ahal izango dute, aurrez dagokionak baimendu ezker.

## Akelarre eta inkisizioari buruzko antzerkia martxoaren 12an



Lapurdikiko *Iduzkilorre* antzerki taldeak akelarreei eta inkisizioari buruzko antzerkia, *Lapurdi 1609-2009 Gertakizun lazgarrien oroimenez*, eskainiko dute martxoaren 12an, larunbata, iluntzeko 7:30etan elizan. Segurako Iparra-Hegoa ekimenarekin elkarlanean antolatutako antzerkia da hau. Elizan lekua prestatzeko Kultur Elkartek dei egiten die herritarrei ostiralean, hilak 11, arratsaldeko 6:30etan laguntzera ager daitezen.

## Bertso afaria emakumeen nazioarteko eguna ospatzeko



Alaia Martin



Amaia Agirre

Martxoaren 8an emakumeen nazioarteko eguna da. Hori gogoan hartuta, eta berdintasuna bultzatzeko, herritar talde batek bertso afaria antolatu du Kultur Elkartearen laguntzarekin. Martxoaren 12an, Oiharten egingo da afaria Alaia Martin eta Amaia Agirre bertsolariekin (txartelak aurrez salduko dira). Urtean zehar berriz, berdintasunaren alde beste ekimen batzuk egiteko asmoa dago (hitzaldiak, antzerkiak, etab.).

## Oiharten irekiera Lizaso eta Txapirekin



Urtarrilaren 28an, ostiralez, Oiharte eraberrituak ateak eta ziriak ireki zituen, Lizaso eta Txapi bertsolariek giroa alaituta.

## Xabier aguazila Urrezko aizkorako finalean

Xabier Dorronsoro, aguazila, Urrezko Aizkorako binakako txapelketaren zilarrezko mailako finalera iritsi da. Finala datorren otsailaren 27an, igandea, jokatu da Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Hura animatzeko herritarren ordezkaritza goizeko 10:30etan irtengo gara autobus paradatik. Bazkaltzen geratzeko asmoa dutenek Ion Muñoiari izena eman diezaiotela osteguna baino lehen, lekua gorde ahal izateko.

## Tute txapelketa



Jose Manuel Oriak eta Jesus Komontesek irabazi zuten otsailaren 5ean jokaturako tuteko txapelketa.

## Mus txapelketa



Heberiano Intxausti eta Alberto Biain segurarrak irabazi zuten otsailaren 19an jokaturako museko txapelketa.

## Zikirio

Jan-kontuarekin gatoz gaurkoan. Harritu ere egingo da, zeraindar bat edo beste. Galdetu ere egingo dio bere buruari: jan-kontuan ere galtzen ari al zaizkigu hitzak? Ez al dugu lehen bezala jaten, egunean bizpahiru aldiz? Ez al dugu Zerainen betikoa jaten? Ez al ditugu beraz, jan-kontuan ere, betiko hitzak erabiltzen? Erantzuna, beste hainbat kontutan bezala, erdibidekoa da: partez bai eta partez ez.

Hasteko, ez gatoz jan-kontu hutzarekin. *Zikirioa* ez da janari-janaria, janaria egiteko balio duen zerbait baikik. Garia bezala, alea da *zikirioa*: ogia egiteko balio duen alea. Honela dio OEH hiztegiak: gaztelaniaz *centeno*, frantsesez "seigle". Adibide batzuk ere eransten ditu, handik eta hemendik jasoak: "zikiyo gutxi, poco centeno", edota "nastutzea Peraltako ardoa sagardoarekin: beste edozeñ ardo urarekin: ogia garagar, edo zikirioarekin, oek dira tranpa debekatuak". Zaldibiko Iztuetak idatzitakoa da beste hau ere: "zikirioa, baba, eta baberruma biltzen da ondotxo, bañan ez gari artoak bezin ugari". Era askotara esaten da hitza. Forma guztiak ere oso antzekoak dira ordea: *zikirio*, *txikirio*, *zikiyo*, *zikiyu*, *sikirio* edo *sikirixo*. Ez da, itxuraz, Euskal herri osoko hitza: batez ere Gipuzkoan eta Nafarroan jaso izan da. Bizkaian ere bai, Gipuzkoarekin mugante diren herri batzuetan.

Adiera nagusia goiko hori duen arren, beste esanahi batez ere erabili izan da Bizkaian: gaztelaniazko *seada* esan nahi du zikirioak, beste adiera horretan. Hona horrelako adibide batzuk: "Oe bi egozan oazeru ta gustikuak, urrezko egaluma ta berebixiko tunturdunak, zikirijozko ixara ta oeganekodunak". "Itzi egiguzu guri soñeko maxok erabilten, edo barrijak egin gura ba-deuskuzuz ez eiskuzuz egin ez urredunik ez zikirijozkorik". "Neure ingizko ixontziaz / zikiriozko oial zuriak / lotuko dautsozaz gogor-ki, / aiziak putzitu dagizan".

Zerainen *centeno* esan nahi du *zikirioak*, ez *seada*. Hala esan nahi du edo,



Zeraingo azokan oraindik era egoten da zikirioa ikusteko eta erosteko aukera.

hobeto esateko, hala esan nahi zuen orain dela 50 bat urte arte. Ordura arte leku askototan ereiten zen zikirioa, antza denez. Geroztik, ordea, gero eta gutxiago. Gaur egun apenas inongo baserritan (Zerainen) zikiriorik ereiten den. Informazio zehatzena, beti bezala, Elenak jaso du horretaz. Ondorio honetara iritsi da bera: "zikirioa edo zekalea gerra garaian eta ondorengo urte batzuetan ere ereiten zen Zeraingo etxe batzuetan, ez askotan".

Ogia egiteko erabiltzen zen zikirioa, batez ere. Honela dio Elenak: "zikirio alearen irinaz otasa-ogia egiten zen: ogi beltza, baina oso goxoa". Ez zen hori zikirioaren probetxu bakarra. Zeraindar batek edo bestek Elenari esan dionez, "bere lastoz aulkiei ipurdiak edo eserlekuak egiten zieten, hiru lasto elkarrekin bihurtuz". Ale eta lasto, probetxu handiko produktua genuen beraz zikirioa. Zekale-ogia orain ere egiten da. Goxo askoa da, eta ez da bestea (irinezkoa) baino merkeagoa. Hemendik kanpora, European, Alemanian eta abar, ugari jaten da zikirio-ogia. *Zikirio-ogia* edo, nahiago baduzu, *zekale-ogia*. Izan ere, gaur egun inor gutxik esaten dio ogi horri zikirio-ogia edo otasa-ogia. Modak, guztiok arrastan

eraman ohi gaituen modak, zekale-ogia esatera garamatza. Horrela esatera edo, hainbatetan, "zenteno"zko ogiarekin gora eta behera ibiltzera.

Zikirio hitza ez da erabat galdu, Zerainen. Bada oraindik, herritarren artean, zikirioa zer den oso ondo gogoratzen duenik. Gero eta gutxiago erabiltzen da ordea. Adin batetik gorakoek bakarrik, edota haiek gehienbat, dakite zikirioa zer den. Haiek dakite eta haiek ezpaineratzen dute hitza, aldian behin. Non dago dakitenen eta ez dakitenen arteko adin-muga hori? Elenak egindako ikerketatxoaren arabera, badirudi 60 eta 70 urteko zeraindarren bitartean dagoela adin-muga. Harritzekoa ez da. Gerra ondoren utzi bazitzaion ale hori ereiteari, eta geroztik irin-ogia izan bada "eguneroko ogie", zertarako behar zuten gazteek hitz hori? Zertarako behar dute hori bimbo-ogia, flautak eta donuts-ak gazteen eta gaztetxoan aho-sabaia gozaten badute? Adelantua berrantzeko eta hipotekak: orain belar-dendara joan behar da, eta doble pagatu, lehen etxean egiten zen zikirio-ogi hura jateko. Han doble ordaindu, eta orduan bai: "bai ona dala zikirio-ogie!".

Mikel Zalbide eta  
Elena Mendizabal



## Xagu-txoko



Babesetik

URTARRILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
						<b>1</b>	<b>2</b>
Euria (l/m)	GUZTIRA: 47,75					0	2,5
C° altuena	ALTUENA: 22°					15	9
C° baxuena	BAXUENA: -4°					2	7
	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>
Euria (l/m)	2	0,25	1	0,25	0,25	3,5	4,5
C° altuena	5	8	14	20	18	17	11
C° baxuena	2	-1	-1	12	13	11	7
	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>
Euria (l/m)	2	12	5	0	0	0	0
C° altuena	15	14	14	16	22	19	19
C° baxuena	1	5	9	8	5	2	6
	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>
Euria (l/m)	0	0	4	0	0	0	0
C° altuena	14	10	10	13	7	6	6
C° baxuena	5	5	7	1	-2	-2	-3
	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>29</b>	<b>30</b>
Euria (l/m)	0	0	0	0	2,5	1,5	6
C° altuena	9	6	8	12	12	12	6
C° baxuena	-4	0	-2	-1	-1	2	4
	<b>31</b>						
Euria (l/m)	0,5						
C° altuena	5						
C° baxuena	2						

## Urtarrila lehorra eta epela joan da

Urtarrilak 48 litro eskas baino ez dizkiugu utzi euritan. Ezin esan dezakegu beraz hil bustia joan denik; are gutxiago kontuan hartzen badugu, adibidez iaz 239 litro egin zituela hil berean, eta azken 11 urteetan hiru aldiz baino ez dituela 100 litro baino gutxiago egin (2000an, 2002an eta 2006an). Horrez gain, tenperaturak ere hilteltzari dagozkionak baino epelagoak izan dira: bost egunetan gerturatu da termometroa 20 gradu ingurura. Zerpekoak, berriz, ez dira hainbeste izan; eta beraz, hilteltza nahiko leuna joan zaigula esan dezakegu.

Aralar elurretan iluntzean



## Santa Agedako usadioa indartsu



Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, Euskal Herriko usadio zaharra berrituz dozenaka herritar ibili ziren kantuan eta eskean etxez etxe. Uharka abesbatzako kideek gidatuta, eta trikitilari nahiz txistularien laguntzarekin, herriko etxeak alaitzen ibili ziren arratsalde-iluntze partean. Urteroko moduan, aurten ere zeraingarrek eskuzabal eman dugu dirua; guztira 1569,30 euro bildu ziren. Diru hori, iaz lurrikarak miseri gorrian utzi zuen Haiti herrialdean laguntzeko erabiliko da. Eskerrik asko guztioi!

## Udaleko ordutegia

Udaleko arreta ordutegia egunero goizeko 10:30etatik 14:30etara da. Baina, ordu horiez kanpo ere Miren udaletxean egoten da asteazken eta ostegun arratsaldetan. Printzipioz astelehen eta astearte arratsaldetan ez da Miren udaletxean egongo.

## Nabarralderen hitzaldia

Nabarralde elkarteko Beñi Agirrek Gipuzkoaren Jatorria izeneko hitzaldia emango da martxoaren 17an, osteguna, iluntzeko 7etan kultur etxean. Dokumental bat ikusiko da lehenik eta ondoren solasaldia egingo da.

## Endika memoriala

Endika Alustiza zenaren omenezko XVIII. bola-memoriala otsailaren 27an jokatu da Liztormendi bolatokian. Tiraldiak goizez eta arratsaldez egingo dira.